


M- 13389

ANV

F- 77330

35578

EUSKEL ABESTIAK



JATXOU

«Lurdes Euzko Aur - Etxea»

1938



EUZKO - ABENDEA'REN ERE SERKIYA

¡Gora ta gora Euzkadi!

!Aintza ta aintza

Bere Goiko Jaun onari!

Areitz bat Euzkadi'n da

Zar, sendo.

Zindo

Bera ta

Bere Lagia lakua;

Areitz-ganian dogu

Gurutza

Deuna

Beti geure goi-buru.

!Abestu gora Euzkadi!

!Aintza ta aintza

Bere goiko Jaun onari!

INAKI - DEUNA - ERESERKIYA

Inaki
Yainkuak bidaldua
Ludiyen ixatera
Yosu'ren
Gudariyen Buruba;
Batzarrak
Astu zindun
Euzkotarren
Zaindari
Zeu zara
Zaindari ta
Yaun onena
Guretzat.
Inaki,
Entzun, arren, eiguzu
Ta geure opea artu.
Biyotza
Euzkotarrak
Jayotzetik
Damotzu;
Zuria da
Beria...

Baso, mendi, ibai, arru...
Zeru-goitik,
Deun Inaki,
Yabon, ba,
Euzkadi.
Yabo-izu
YAUNGOIKOA,
Yabo-izu
LAGI-ZARRA;
Areyo-aurrian
Zeuk agindu
Euzkotarrak...
Gudean sarturik,
Ezpatea artuta,
Euzkotarren aldez,
Donge ta areyua
Indar zerutarrez
Zatitu osoro ta...
Zoriyontsuba
Euzkadi beti ixango da
Zeuk, Inaki,
Zainduta.

GOIKO MENDIYAN

Goiko mendian
Edurra dago,
Erreka-aldian ixotza.
Neu zeugandik
Azke nago ta
Pozik daukot
Biotza.

iEne Aberri
Polit-ederra!
¿Zeu lakorik nun dago, ba?
Zeugaz beti
Bixi gura-dot
Eldu-arte
Eriotza.

IIXASUA

Itxasua lano dago
Bayona'ko alderano
Ni zu zaitut maitiago
Txoriak beren umiak bano.

—

Gure oroiz aita dago
Lano-pian gaberano.
Ni zu zaitut maitiago
Arraitxuak ura bano.

ABERRI MAITIARI

(Bizkayerazkua)

Lora polita ontziyan
begiratzen dodanian,
orduban zaukot, ene maitia,
neure goguan.

Txori polita kayolan
barruratzen dabenian,
iai! ordubantxe zaukat, maitia,
neure goguan.

Mutikotxuba ikastolan
il-illik sartzen danian
zeure gomuta bixi bixiya
daukot goguan.

i YANTZARA MUTILLAK!

Aurten inungo yaitik
baserri polit onetan.

Amaika yantza biogu egin
arnasarik artuteka.

Geure biyotza alaituta,
poz-pozik eginda iuyuyu!
i yantzara, mutillak, erdu!

Euzkadi-ekandubak
maite maiterik bai-doguz.

Eztogu gura yantza zkiinik,
garbixaliak gara gu.

Geure biyotza alaituta,
poz.pozik eginda iuyuyu!
yantzara, muillak, erdu!

MENDIKO NEGARRA

*Ene Aberri laziana
jausi zara erbestepian
¡Obia eriyotza ba!*

Zeure basotik
Atzo igoten zan
Eskari ona
Zerura
Gaur erdelduna
Sartuta'
Axia emen
Birauz beteda,
¡Zelan ondino il etzara!

Ekandu onak
Asabeari
Zoruna emon
Len eutsen,
Ara motzenak
Gaur emen
Zeure bijotz
Garbija usteltzen
¡Ta zeu, Ama, etzara iltzen!

Gurutz zurija
Baltzitu data
Areitz orleya
Oritu.

Geratu ezer
Etxatzu :
Seme onik,
Ama, eztozu.
ill, Aberrija, zakigu!

Ez-egin negar:
Etzaut, Ama, nai
Negar-eginik
Zu ikusi:
Zeure negarrok
Motzari
Eragiten
Dautso bere-irri.
ill, Ama, laster! ill zadi!

ORRA OR GOIKO

iOrra or goiko
Areiztitxu baten
Kukubak umiak
Egin yozak aurten,
Kukubak egin,
Amillotxak jan,
Axe bere kukubaren
Zoritxarra zan!

iAupa, mutillak,
Gogor jantza-egin!
Mai onen ganian
Izteai eragin.
Biyotz alaya
Beti geuria .
Zirkin eta zirkin
Yardun atseden-baga

AITONAREN ESANA

Neure semian seme,
Neure illoba laztana,
Ezeik aiztu aitonak
Irakasten dauskana.

Lenen maite-egik beti
Geure Jaungoikua,
Eta onenurrengo
Euzkadi geure Ama.

—

Gu euzkotarrak gozak,
Utz-utzez euzkotarrak,
Odoiez garbi eta
Gogoz sendo-zinduak.

Geuk Euzkadi yagu
Aberri bakarra;
Bera goraldutia
Dok geure biarkuna.

ITXARKUNDIA (GOIZ ABESTIYA)

Azkatasun eguzkiya
Basotik urten da,
Bere argiya edonun
Arin zabaltzen da.

*iItxartu zaiz euzkotarrak!
iAupa, euzkeldun guztiyak!
iGora, gora antzineko lagiyak!*

Ixillik ba-zagoz danok
¿Zer dozube entzuten?
Ara, gaur guda-santsuak
Gatuzan detuten.

iItxartu...

Arpegiya gorrituta
Darakus euzkiyak;
Gorriyagotuko dira
Bertoko mendiyak.

iItxartu...

MATZAREN ORPOTIK

Matzaren orpotik dator
Mama gozua,
Mama gozua,
Edango neukela
Beterik basua.
¡Klink!
Beterik basua.
Nik zuri,
Zuk niri
Agur-eginaz alkarri,
Basua txit garbi
Biarko da ipini.

NI MENDEXA'RA

Ni Mendexa'ra Deun-Kepa-aldijan
Bai-nua, bai, jayetara.
¡Arek, bai, neskatzak
Ederrak, liranak
lekeitiarren aldian
Mendexa baserritxuban!
Ta Jon-Deunan, ta Jon-Deunan
Beti zaukodaz goguan.

—

Igaztik ona urtebetia da
¡Aldi orreren luzia!
Orditik ona
Gau ta egunetan
Aldatu leike gastia,
Aldatu leike gastia,
Ta Jon-Deunan, ta Jon-Deunan
Beti zaukodaz goguan.

URRUNDIK

(Nabarrerazkua)

Urrundik ikusten dut
ikusten mendiya;
beraren gibelean
dago nire erriya.

Yadanik dut aditzen
zariyon aundiya:
yuale maitiaren
asperen eziya.

(Bizkayerazkua)

Gastetxu nintzanian
erritik urtenda
negarrez atzerrira
jun nintzan lan-billa.

Oin pozik aberrira
nentorran atzera...
¡Gaxuoi! Oindino az
arrotzen jopuba.

iENE AMA!

Bixi ezta
Ludi gustiyan
Ene Ama
Baxen ederra, bana ez
Ain gaxua.
Gustiz ederra
Bera dalako,
Erbeste-pian
Jausi da...
!Ara bata,
Sortu dituzan
Semiok, ba,
Berari bixitxa kentzen
Dautxoela!

¿Le ikusten dabe
neure begiok?
Au danau dakust
galduta:
berezi, baso,
muru ta mendi,
uri, baserri
ta dana...
Motzak sartuta,
saloberiok
ara birrindu
dabela.
ill nayago dot
ikusi bano
Aberriyaren
amaya!

Esaizazube,
Euzkotarrak, ba,
nun diran zuben
erriyak.
Eztira agertzen
inun-inun bez
zuben asaben
lagiak.
Motzak sartuta
zuben etxion,
dira amen jabe
nausiyak.

Iez esan inoz
mendi onek, ba,
dirala zuben
mendiyak!

LE-
NA-
GO
IL!

¿Noz euzkotarrak
Jaun-goikua'ren
ixen deuna aiztu
len eben?
Orain motzak lez
lotuten dabe
loidun erderaz
egiten.
Ekandu onak
itxita, baltzak
artu ditube
gaur emen.
¡Goiko Jaun ona:
erruki zadi
aiztu zabenoi
bai, arren!
¡Erri gaxua!
¿Jayo nintzan ni
zeure il-orduban
eltzeko?
¿Zegatik, Ama'
zeure semiot
eztira itxartzen
ondino?
¿Ama, ilgo zara
motzen azpiyan?
¿Ilgo zara zeu
betiko?
¡Itxaron, Ama!
ijarrijon biot
neure odol au
lenago!

GABON-ABESTIYAK

iAtor, ator, mutil etxera!
Gastana zimelak jatera;
Gabon-gaba ospatuteko
Aitaren ta Amaren onduan.
Ikusiko dot aita barreka,
Ama, be, poz-atseginez.

Eragiyok, mutil,
Aurreko danbolin ori;
Gastanak erre artian
Txipli, txipla, pun,
Gabon-gaba pozik
Igaro daigun.